

EUSKARAREN NORMALIZAZIOA ETA ERABILERA EPAITEGIETAN: **EKIMENAK ETA EMAITZAK**

1. Sarrera

Euskarak egungo Justizia Administrazioan izan duen bilakaera aztertzeke, haren garapen historikora jo beharra dugu. Bilakaera historikoaz hitz egiterakoan, azken 30 urtekoaz hitz egingo dugu, izan ere, euskararen normalizaziorako epaitegietan proposamen anitz egin dira, baina, oraindik hutsune asko geratzen dira betetzeko.

2. Euskararen bilakaera

Euskara orain dela milaka urte sortu zen eta hizkuntzak bere gorabeherak izan ditu garaiazen arabera. Batzuetan egoera ona izan du, eta beste batzuetan, ordea, atzerapen nabaria; frankismoan, esaterako. Hala ere, gaur egungo egoera alderatzen badugu duela 30 urtekoarekin, ohartuko gara garapen handia egon dela, batez ere, 1982an euskara EAEko hizkuntz ko-ofizial bezala onartu zenez geroztik, gaztelarekin batera.

Haatik, nahiz eta EAEn euskara gaztelaren maila berean dagoela iruditu, benetako egoera oso bestelakoa da. Ofiziala izan arren, euskarak ez du oraindik dagokion lekua aurkitu zenbait alorretan, besteak beste, arlo judizial eta administratiboan.

Erromanizazioaren garaian, erromatarrek latina ezarri zuten Espainiako Estatuan eta hori izan zela medio, Estatuan zeuden hizkuntzak ahuldu ziren; gure kasuan euskararen ahuldura eman zen. Hala ere, euskara ez zen guztiz desagertu. Euskara gero eta gehiago entzuten zen, baina hizkuntz herrikoa zen. Horrek arazoak sortarazi dizkio euskarari Zuzenbide arloan sartzeko, izan ere, arlo horretan ezin da hizkuntza herrikoi bat erabili; hizkuntza zaindua eta teknikoa izan behar da.

Frankismoaren aldiaren ere euskararen atzerapena eman zen. Erregimenak muga asko ezarri zizkion hizkuntzari. Euskararen erabateko deuseztasuna eman zen, esaterako, ezin zen euskaraz hitz egin ezta hizkuntza bera ikasi/irakatsi ikastetxeetan... Hala ere, diktadura behin amaiturik, euskara bultzatzeko ahaleginak egin dira euskararen normalizazio bidean, bai Administrazio zein Zuzenbide arloan. Horren adibide argia da azken urteotan egin diren zenbait ekimen eta proposamen.

3. Gaur eguneko egoera

3.1. Proposamenak eta ekimenak

Behin Frankismoa amaiturik, azken 30 urte hauetan, hainbat lege egin dira euskararen normalizazioa bultzatzeko. Lege aitziindaria edo egin zen lehena, orain dela 25 urte onartua izan zen, *Euskararen Arauzkotzeko Legea*. Baina, oraindik euskararen normalizazioa oso urruti ikusten da.

Bestalde, Justizia Administrazioan euskararen erabilerak duen inguruabar juridikoa, zenbait legetan dago jasota. Lege horien artean badaude batzuk oinarritzkoak direnak Estatuarentzat eta beste batzuk arau horietatik eratorzen direnak, besteak beste, Espainiako Konstituzioan, EAEko Autonomia Estatutuan, Botere judizialaren lege organikoan, Europako eremu urriko edo eskualdeko hizkuntzen Gutunean eta 117/2001 dekretuan. Eremu hauek euskara normalizatzeko oinarriak izaten dira. Hauek guztiak IVAPen eta Justizia Sailaren web-orrialdean aurki ditzakegu.

Aipaturiko arau horiek zenbait helburu ezarri zituzten:

- Euskararen garrantzia sustatu eta hedatzeko ahalegina egitea
- Euskarazko zerbitzuak erabiltzera estimulatzea
- Pertsonalaren euskalduntzea bai administrazioa bai arlo juridikoan... Horretarako, zenbait neurri erabili dira, adibidez, euskara ikastaroak eskaintzea
- Abokatuak sentsibilizatzea
- ...

Modu berean, Eusko Jaurlaritzak bere aldetik ere, euskararen sustapena bultzatzeko ahaleginak egin ditu 152/2008 dekretuarekin; euskara justizian jarduteko hizkuntza izatea da dekretu honen helburu nagusia. Horretarako arlo juridikoan ari den pertsonak euskara jakitea meritu bezala kontutan hartuko da, nahiz eta egoera batzuetan ere gerta daitekeen, meritutzat jo beharrean, baldintzatzat hartzea, arlo horretan euskara behar-beharrezkoa denean, izan ere, lortu nahi dena da Justizia lanpostuan %35 lanpostu hizkuntzaren arabera eskakizun berezikoak izatea

Beraz, eta labur esanda, euskararen inguruan eman diren proposamen guztiak, herritarrok justiziaren eta administrazioaren aurrean bi hizkuntzak egikaritu ahal izateko izan dira. Hau da, pertsonak askatasunez aukeratzeko zein hizkuntzatan egin nahi duten izapidea, kontsulta, agerpena...

Ekimenei dagokien kasuan, garrantzitsua izan da unibertsitateek Zuzenbide ikasketak euskaraz eskaintzea, izan ere, horrek ahalbidetzen du ikasketak amaitu ostean, lanean euskaraz jardun ahal izateko posibilitatea. Hau lagungarri suerta liteke euskararen normalizaziorako arlo juridikoan. Jakina denez hauek itzulpengintzak egin dezakete eta horrekin bat, euskarazko hizkuntza auzitegietan bultzatu. Egun, Abokatuak elkargoak abokatu euskaldunak jartzen dituzte herritarren esku.

Eusko jaurlaritzako Justizia sailak ere hainbat ekimen jarri ditu abian, horien artean, Euskara Batzordeak epaitegi zein auzitegi guztientzako lantzen dituen idazki-eredu euskaldunak eta euskararen erabilera sustatzeko programen barruan dauden esperientziak daude.

Hori guztia gutxi izango balitz, aipatzeko da, epaitegietako eta administrazioako itzultzaileen lana. Lan hau oso garrantzitsua da, horrek bidea zabaltzen baitu epaitegien aurrean euskaraz aritzeko posibilitatea. Epaitegietako agiriari dagokionez ere, UZEI-k hau itzultzen hasi da 1979 urtetik aurrera.

Justizia saileko batzordea bere aldetik ere, euskal testugintza juridikoan, urrats handiak lortu ditu, terminologiari, testuen kalitateari eta lanaren errentagarritasunari dagokionez. 2002 urtean, Eusko Jaurlaritzako Justizia sailak euskararen erabilera bultzatzeko esperientziak jarri zituen martxan epaitegi arruntetan eta bake-epaitegietan ere. Horren helburuak honako hauek dira (Epainet web-orrialdean ikus daitezkeenak):

- Zeregin bera betetzeko dokumentu berbera erabiltzea
- Zenbait eredu eguneratzea
- Lan gestioa eguneratzea
- Euskararen erabilera areagotzea
- ...

Azkenik, amaitzeko, aurrean martxan jarri den plan bat aipatu behar dugu. Horren arabera, euskara hutsez lan egiteko, bulego judizial batzuk ireki egingo dira. Horretarako zenbait urte itxaron egin beharko ditugu planaren efikaziari buruz hitz egiteko.

3.2. Ekimen eta proposamenek izan dituzten oztopoak, lorpenak eta hutsegiteak

Aurreko atalean esandakoaren arabera, euskara bultzatzearen ekimenek emaitza ikusgarriak izan dituzten arren, oraindik ez da lortu benetako normalizazioa arlo juridikoan. Oraindik ere lan handia egin beharra dago.

Alde batetik, lortu behar zen emaitza ez da lortu. Horren arrazoietakoa bat izan da indarrean dauden arauak gai honi buruz ez daudela behar bezala eginda, hau da, arauak zenbait hutsune dituztela. Izan ere, indarrean dagoen araudia kontutan hartzen baldin badugu, BJLO-a esaterako, arlo juridikoan erabili behar den hizkuntza aipatzen duenean honako hau esaten du: *“Guzitek gaztelera erabiltzeko beharra dutela... eta autonomia erkidegoen kasuan, haien berezko hizkuntz ofoziala ere erabili ahal izango da”*. Beraz, diferentzia argia da: gaztelera erabili “beharra” dago eta euskara aldeaz, “erabili ahal” izango da.

Ondorioz, oraindik, Espainiako Konstituzioak aitortzen digun hizkuntza eskubidea ez da bermatzen, bete behar diren hutsuneak anitzak baitira.

Bestetik, euskararen erabileran hutsuneak daude. Epaitegi zein auzitegietan ez dago euskarak jasotzen duen eskaerarik, hau da, herritarrok ez dugu gure partetik jartzen arlo hori sustatzeko. Hori hutsune oso handia da eta bakarrik gure partetik konpondu dezakegu. Hala, euskaraz ikasi duten abokatuek ere, behin karrera amaituta eta lanean ari direnean ez dute euskara erabiltzen.

Arazo hau ematen da euskara oraindik ez dagoelako normalizatua eta horren ondorioz errazagoa da lana gaztelera egitea, ez dutelako ezer itzuli behar eta lana arinago burutzen delako.

3.3. Ekimen horiek izan duten eragin positibo zein negatiboa.

Aurreko guztia kontutan izanik, euskarak azken 30 urte hauetan, aldaketa eta aurrerapauso asko eman ditu. Euskarak legearen babesa dauka EAEko epaitegietan, baina, oraindik ez du dagokion tokia irabazi (lehen esandakoagatik, hau da, hizkuntzaren erabilera urria). Hori gutxi izango balitz, pertsonala eta materialak ere euskaldundu behar dira eta horrek prozesua moteldu egiten du.

4. Etorkizuneko erronkak

Lehendik esan bezala, arlo juridikoan euskararen normalkuntzarako aurrerapauso garrantzitsuak eman dira, baina gehienak bere erregulazioari dagokionak izan dira. Baina, gaur egungo errealitatea erreparatuz gero, ikus dezakegu hori ez dela behar bezala aplikatu, hau da, teorian ekimena ondo eman da, baina ondoren, praktikara eramatean ez da emaitza bera lortu.

Horren arrazoietakoa bat da justiziako funtzionario eta langileen euskalduntzeko interes gabezia. Hala ere, justiziaren alorreko eskaera euskaraz egingo balitz, euskaraz galdutako balitz eta erosotasunagatik gaztelaniara joko ez balitz, funtzionarioek euren burua behartuta ikusiko lukete euskaraz jarduteko eta orduan hizkuntza ikasiko lukete.

Hori gutxi izango balitz, euskara juridikoaren alorrean oraindik gauza asko egin behar dira. Alde batetik, juristek bere aldetik lan handia egin dute lege testuen itzulpenak egiten haien ekimenez, elkarrekin koordinatu gabe. Hori dela eta, ez dago erabateko batasunik hizkuntzaren alorrean. Ezberdintasun handia egon daiteke testu batetik bestera, izan ere, egindako lanari irteera eskasa eman baitzaio. Lan horietako asko partikularrak dira, batasun gabeak.

Bestetik, epaile euskaldunen banaketa desegokia da. Banaketa orekatzeko bideak jartzea beharrezkoa da, oinarrizko eskubide bati buruz ari garen heinean, eskubide hori ezin baita herri baten biztanle euskaldun kopuruak mugatuta egon, hiztun bakarra badago ere, bere eskubideak oinarrizkoa izaten jarraitzen baitu.

Beraz, eta ondorio gisa, gaur egun bultzatu behar dena da gizartea jabetu behar dela egungo egoeraz eta aurrera egitea euskararen normalizazioarekin. Horretarako euskaraz ikasten ari garenok paper garrantzitsua hartu beharra dugu gure gain, izan ere, behin karrera amaiturik euskara erabiltzen jarraitu beharra dugu bulego judizialean. Oraindik ere lan handia dago egiteke, beraz, has gaitezen lanari gogor ekiten.